*11. artikulua. Hiri-lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga aldatzea.*

Aldaketa hauek sartzen dira Hiri-lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 16/1989 Foru Arauan:

*Bat.* 1.2 artikuluko c) letra honela geratzen da idatzita:

«c) Ezkontideek ezkontza sozietateari egindako ondasun eta eskubideen ekarpenen kasuan, ekarpen horien ordainetan haien alde egiten diren adjudikazio egiaztatuak eta ezkontideei beren hartzeko erkideen ordainetan egiten diren eskualdaketak.

Xedapen bera aplikatuko da, aurreko paragrafoan aipatutako kasu berberetan, izatezko bikotekideek egiten dituzten ekarpen, adjudikazio eta eskualdaketei dagokienez.

Zergari lotu gabe egongo da, orobat, ezkontideen artean, izatezko bikotekideen artean edo seme-alaben alde ondasun higiezinak eskualdatzea, baldin eta eskualdaketa hori gertatzen bada ezkontza baliogabetu edo senar-emazteak banandu edo dibortziatzean edo izatezko bikotea deuseztatzean emandako sententziak betetzeagatik, ezkontzako erregimen ekonomikoa edo izatezko bikotearen ondarezko erregimen ekonomikoa zeinahi dela ere.»

*Bi.* 4. artikuluko 3. apartatuan aurreikusitako koefizienteen gehieneko zenbatekoen taula honela geratzen da:

| «*Sorreraldia* | *Koefizientea* |
|---|---|
| Urtebetetik behera | 0,15 |
| Urte bat | 0,15 |
| 2 urte | 0,14 |
| 3 urte | 0,14 |
| 4 urte | 0,16 |
| 5 urte | 0,18 |
| 6 urte | 0,19 |
| 7 urte | 0,20 |
| 8 urte | 0,19 |
| 9 urte | 0,15 |
| 10 urte | 0,12 |
| 11 urte | 0,10 |
| 12 urte | 0,09 |
| 13 urte | 0,09 |
| 14 urte | 0,09 |
| 15 urte | 0,09 |
| 16 urte | 0,10 |
| 17 urte | 0,13 |
| 18 urte | 0,17 |
| 19 urte | 0,23 |
| 20 urte edo gehiago | 0,40» |

*Hiru.* 5. artikuluko 4. apartatua honela geratzen da idatzita:

«4. Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 9. artikuluan xedatutakoaren arabera, udalerriek zergaren kuota osoaren ehuneko 95era arteko hobaria arautu ahal izango dute lurren eskualdaketan eta jabaria mugatzen duten gozamenezko ondasun eskubideen eskualdaketan edo eraketan, betiere kostu gabeko eskualdaketak edo eraketak badira eta ondorengo ahaideen, adoptatuen, ezkontideen eta izatezko bikotekideen edo aurreko ahaideen edo adoptatzaileen alde egiten badira, heriotza dela-eta.

Aurreko paragrafoan aipatutako hobariaren gainerako alderdi substantibo eta formalak ordenantza fiskalean arautuko dira.»

*Artículo 11. Modificación del impuesto sobre el incremento de valor de los terrenos de naturaleza urbana.*

Se introducen las siguientes modificaciones en la Norma Foral 16/1989, de 5 de julio, del Impuesto sobre el Incremento de Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana:

*Uno.* La letra c) del artículo 1.2 queda redactada en los siguientes términos:

«c) En los supuestos de aportaciones de bienes y derechos realizadas por las y los cónyuges a la sociedad conyugal, adjudicaciones que a su favor y en pago de ellas se verifiquen y transmisiones que se hagan a las o los cónyuges en pago de sus haberes comunes.

Igual disposición se aplicará, en los mismos supuestos a que se refiere el párrafo anterior, respecto de las aportaciones adjudicaciones y transmisiones que efectúen las y los miembros de la pareja de hecho.

Tampoco se producirá la sujeción al Impuesto en los supuestos de transmisiones de bienes inmuebles entre cónyuges, entre miembros de la pareja de hecho, o a favor de las hijas o los hijos, como consecuencia del cumplimiento de sentencias en los casos de nulidad, separación o divorcio matrimonial o extinción de la pareja de hecho, sea cual sea el régimen económico matrimonial o el régimen económico patrimonial, respectivamente.»

*Dos.* La tabla de los importes máximos de los coeficientes prevista en el apartado 3 del artículo 4 queda redactada en los siguientes términos:

| «*Periodo de generación* | *Coeficiente* |
|---|---|
| Inferior a 1 año | 0,15 |
| 1 año | 0,15 |
| 2 años | 0,14 |
| 3 años | 0,14 |
| 4 años | 0,16 |
| 5 años | 0,18 |
| 6 años | 0,19 |
| 7 años | 0,20 |
| 8 años | 0,19 |
| 9 años | 0,15 |
| 10 años | 0,12 |
| 11 años | 0,10 |
| 12 años | 0,09 |
| 13 años | 0,09 |
| 14 años | 0,09 |
| 15 años | 0,09 |
| 16 años | 0,10 |
| 17 años | 0,13 |
| 18 años | 0,17 |
| 19 años | 0,23 |
| Igual o superior a 20 años | 0,40» |

*Tres.* El apartado 4 del artículo 5 queda redactado en los siguientes términos:

«4. De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 9 de la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio, reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa, los Municipios podrán regular en sus Ordenanzas fiscales una bonificación de hasta el 95 por 100 de la cuota íntegra del impuesto, en las transmisiones de terrenos, y en la transmisión o constitución de derechos reales de goce limitativos del dominio, realizadas a título lucrativo por causa de muerte a favor de las y los descendientes y adoptadas y adoptados, las y los cónyuges o las y los miembros de las parejas de hecho, y las y los ascendientes y adoptantes.

La regulación de los restantes aspectos sustantivos y formales de la bonificación a que se refiere el párrafo anterior se establecerá en la Ordenanza fiscal.»

*Lau.* Xedapen gehigarri bakarra txertatzen da, eduki honekin:

«Xedapen gehigarria bakarra. Izatezko bikoteak.

Foru arau honen ondorioetarako, testu honetan izatezko bikote esaten den guztietan izatezko bikoteak arautzen dituen Eusko Jaurlaritzaren maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eratutako bikoteak aipatzen ari direla joko da.

Era berean, ulertuko da erreferentzia horiek beste autonomia erkidego batzuetako, Europar Batasuneko beste estatu batzuetako, Europako Esparru Ekonomikoko edo hirugarren herrialdeetako erregistro publikoetan antzeko moduan eratu eta inskribatutako izatezko bikoteei ere egiten zaizkiela.

Orobat, ezkontza bidezko ahaidetasun harremanei buruzko aipamenek izatezko bikotetik eratorritakoak ere hartuko dituzte barne.»

*Cuatro.* Se añade una disposición adicional única con el siguiente contenido:

«Disposición adicional única. Parejas de hecho.

A los efectos de esta norma foral, las referencias que se efectúan a las parejas de hecho se entenderán realizadas a las constituidas conforme a lo dispuesto en la Ley del Parlamento Vasco 2/2003, de 7 de mayo, reguladora de las parejas de hecho.

Asimismo, se entenderá que dichas referencias comprenden también a las parejas de hecho constituidas e inscritas de forma análoga en registros públicos tanto de otras comunidades autónomas como de otros Estados miembros de la Unión Europea, del Espacio Económico Europeo o de países terceros.

Del mismo modo, las referencias realizadas a las relaciones de parentesco por afinidad incluirán aquellas relaciones que deriven de la pareja de hecho.»